# XVI. IDAZLAN KOADERNOA




GERNIKA-LUMO
2017

# XVI. IDAZLAN KOADERNOA

**Ipuin zoragarriak**

**Lehen Hezkuntza**
**GERNIKA-LUMO**
2017


## edizioa

Argitaratzailea:
- **Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila**

Laguntzaileak:
- **Allende Salazar Ikastetxea**
- **Barrutia Eskualde Ikastetxea**
- **Mertzede Ikastetxea**
- **San Fidel Ikastola**
- **Seber Altube Ikastola**

Azalaren egilea:
**Iraia Martin Matilla**
(LH 5. mailako ikaslea)

Babesleak:
- **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** (HPS)
- **Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila** (Euskara Zuzendaritza)

Diseinua eta maketazioa:
- **11barri**

Inprimaketa:
- **Lizaso Grafikak Zornotza**


## hitzaurrea

Sarritan esaten dugu euskararen ezagutza areagotuz doala, baina argi eduki behar da hizkuntza barru-barrutik bizi izaten ikasten ez bada, hankamotz gerta daitekeela ezagutze hori.

Horrekin lotuta, ezin dugu ukatu ikasketak ondo burutzeko irakurketa eta idazketa direla tresnarik garrantzitsuenak, ondo ulertu eta ondo adierazitakoa ez delako inoiz ahazten. Ikastolan eta ikastetxean lantzen diren idazlanek zelako garrantzia daukaten ikusi, eta horietako batzuk liburu landu eta txukunean jasotzen direla ikusteak, lagundu egingo die ikasleei eta gurasoei hizkuntza emozioaren bidetik bizi izaten. Emozio horrek ekarriko du euskara gure bizitzan errotzea.

Adiskideok, "hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baino" eta ehun urte barru honelako ekintzak oroitzapen hutsa izan ez daitezen osatzen dugu bilduma hau, belaunaldiz belaunaldiko katea eten ez dadin.

Mª Luisa Aldamizetxebarria

Marisa Aldamizetxebarria
*Euskara zinegotzia*




# IDAZLAN KOADERNOAK 2017

## LHkoen IRAKURKETA EKITALDIA

2017ko MAiATZAren 4-5ean
GERNIKA-LUMOn •
LIZEO ANTZOKIAN, 11:00etan


| IZENA | IKASTETXEA | maila | IPUINA | orr. |
|---|---|---|---|---|
| Jon Lejarzegi Agirre | MERTZEDE | L.H. 1. | ***Leopol*** | 5 |
| Uxue Alvarez Pertika | SEBER ALTUBE | L.H. 2. | ***Ipotxa eta Azeria*** | 7 |
| Iker Kortazar Gonzalez | SEBER | L.H. 2. | ***Mutil baten ametsa*** | 9 |
| Danel Urkiri Anakabe | SAN FIDEL | L.H. 2. | ***Basoko animaliak eta ehiztaria*** | 11 |
| Enara Santamaria Jaio | SAN FIDEL | L.H. 2. | ***Poltsa berezia*** | 12 |
| Anne Dobre | MERTZEDE | L.H. 2. | ***Anderren pilota*** | 13 |
| Uxue Martinez Artetxe | ALLENDE | L.H. 2. | ***Zuri gure laguna*** | 15 |
| Eider Solaun Lejarzegi | ALLENDE | L.H. 2. | ***Familia, Rufo eta Misi*** | 16 |
| Naia Atutxa Aurrekoetxea | BARRUTIA | L.H. 2 | ***Australiara bidaia*** | 17 |
| Enara Zabala Gorroño | BARRUTIA | L.H. 2. | ***Zaldia eta Lili*** | 18 |
| Oihan Moreno Torrealdai | SEBER ALTUBE | L.H. 3. | ***Jon txikiaren lehen abentura*** | 19 |
| Ana Elgezabal Rodriguez | MERTZEDE | L.H. 3. | ***Ana eta sorgindutako gaztelua*** | 21 |
| Ugaitz Azillona Durana | ALLENDE | L.H. 3. | ***Azeria mundua ezagutzen*** | 23 |
| Koldo Basterretxea | BARRUTIA | L.H. 3. | ***Denok alkarrekin lagun*** | 25 |
| June Beaskoetxea Artetxe | SEBER ALTUBE | L.H. 4. | ***Hartz Larrosa*** | 27 |
| Maddi Urkiri Anakabe | SAN FIDEL | L.H. 4. | ***Mutil dantzaria*** | 30 |
| Eider Mugira | SAN FIDEL | L.H. 4. | ***Maitagarrien magia*** | 32 |
| Maialen Flores Arriaga | MERTZEDE | L.H. 4. | ***Jone eta Beltz astoa*** | 34 |
| Aret Villasante Rementeria | ALLENDE | L.H. 4. | ***Txori berria*** | 37 |
| Dune Alcala Alvarez | BARRUTIA | L.H. 4. | ***Eskiatzaile bat*** | 39 |
| Miren Mondragon Alvarado | SEBER ALTUBE | L.H. 5. | ***Maltzur mozorrotua*** | 41 |
| Amaia Zubillaga Salces | MERTZEDE | L.H. 5. | ***Umeak eta Brujuli*** | 44 |
| Endika Telletxea Monasterio | ALLENDE | L.H. 5. | ***Errotulki magikoak*** | 47 |
| Garazi Garitaonaindia Eizagirre | BARRUTIA | L.H. 5. | ***Mendien zaindaria*** | 50 |
| Jon Irazu Betanzos | SEBER ALTUBE | L.H. 6. | ***Patxi, lotsatia baina bertsolaria*** | 53 |
| Nile Mugira Orbe | SAN FIDEL | L.H. 6. | ***Igogailu magikoa*** | 56 |
| Javi Garatea Ansotegi | SAN FIDEL | L.H. 6. | ***Itsas bidaia*** | 59 |
| Ane Pinedo Barandika | MERTZEDE | L.H. 6. | ***Lapurra izan arren, bera lagunik onena*** | 62 |
| Garazi Arandia Alberdi | ALLENDE | L.H. 6. | ***Estralurtarra*** | 66 |
| Arale Lejarzegi Azurmendi | BARRUTIA | L.H. 6. | ***New York, nire ametsa*** | 69 |



## Jon Lejarzegi Agirre

«Irakurtzea eta telebista ikustea asko gustatzen zaizkit»

# Leopol

Leopol

Behin lotan izartu nintzenean eta han zegoen eta asko gustatu zitzaidan.
Hurrengo egunean berriz, esnatu nintzenean han zegoen berriro eta gustura sentitu nintzen. Hortik aurrera, goizero han egoten zen nire ondoan, hain leun, hain gozo... nik ez nekien nor zen baina nire laguna bihurtu zen.
Hau dela eta izen bat jarri nion: Leopol, bai izen polita ezta?
Leopol tralmizkoa eta kolore askotakoa da.
Denbora asko pasatzen dugu elkarrekin.
Nire amak, Bermeotik trenez etorri zela dio.
Aurretik beste jabe batzuk izan zituen.
Orain Jesusen laguntzailea da.


Nire amak dio ume bakoitzak zaintzaile bat dugula. Nirea Super-Leopol da.
Nire lagun miragarria.......
NIRE LAGUNA
SUPER LEOPOL
JON Lejarregi Agirre
6 urte



Uxue Alvarez Pertika
«Lagunekin egotea asko gustatzen zait»

# Ipotxa eta Azeria

IPOTXA ETA AZERIA

Bazen behin ipotx bat eta azeri bat. Ipotxa oso pozik bizi zen eta oso alaia zen. Azeria berriz oso kuxkuxeroa zen. Egun batean azeria oso aspertuta zegoen eta ipotxak esan zion: Zer gertatzen zaizu? oso aspertuta nago- erantzun zion azeriak.

Ipotxak alferra ez izateko, munduan jolasteko eta ondo pasatzeko gauza asko daudela esan zion. Zelara jolastu erabakitzen zeudela, ipotxaren ama deika hasi zen bazkaltzera joateko

Ipotxak azeriari esan zion: Bazkaltzera joan behar naiz. nahi al duzu nirekin etorri? Bai!! esan zion azeriak. Orduan, biak joan ziren ipotxaren etxera. Bazkaltzea amaitu zutenean azeriak leihotik begiratu zuen eta euria zela ikusi zuen, ez



Ziten kalean jolastuko. Orduan inori ezertxo
esan gabe ipotxaren gelara joan zen eta dena
Kuxkuxeatzen hasi zen, eta Konturatu gabe ipotxak
ikastolara eroateko prestatuta Zuen sumendi bat
erori eta apurtu Zitzaion. ipotxa Konturatu Zenean ez zen
asko haserretu, eta horrela ikasi zuen azeriak ez dela
horren Kuxkuxeroa izan behar egun hartatik aurrera
azeria eta ipotxa lagun handiak egin Ziren eta oso Zoriontsu
bizi izan Ziren. Hala bazan edo ez bazan Sardadila gernikako plazan



Iker Kortazar Gonzalez
«Futbolean eta dantzan gustura ari naiz»

# Mutil baten ametsa

## MUTIL BATEN AMETSA

Bazen behin mutil bat Karlos deitzen zena. Karlosek, hamar urte zituen. Amets asko izaten zituen eta txikitatik, astronauta izan nahi zuen.

Gau batean, ametsetan zegoela argi bat ikusi zuen eta argi haren atzetik joan zen. Maitagarri bat zen eta esan zion: "zure ametsa benetan bihurtuko dut" Orduan Karlos, astronauta jantzita agertu zen eta espaziora eraman zuen.

Handik goitik lurra eta eguzkia ikusten zituen, eta ilargian ere jolastu zuen.

Bapatean, bere amak iratzartu zuen ikastolara joateko. Karlosek, ez zekien izan zuena ametsa ala egia zen, baina bere pijamaren barruan zerbait zegoen, berak ez zekien zer zen.



Bapatean ilargikó harri bat agertu zitzaion.
Harrezkeró, Karlosek bazekien handitan zer izangó zen.

ASTRONAUTAAA!!!



Danel Urkiri Anakabe

«Lagunekin futbolean jolstea izugarri gustatzen zait»

# Basoko animaliak eta ehiztaria

BASOKO ANIMALIAK ETA EHIZTARIA.

Behin batean baso baten animaliak oso beldurtuta bizi ziren. Ehiztari gaizto bat egunero joaten zen basora ehizatzera eta animaliak izututa bizi ziren. Egun baten animaliek zulo handi bat egin zuten ehiztariarentzat eta hostoz bete zuten. Ehiztaria bertatik pasatu zenean zulora jausi zen eta laguntza eskatzen hasi zen. Animaliek lagundu egin zioten zulotik ateratzen eta handik aurrera ehiztariak ez zuen basoan ehizatu gehiago. Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Gernikako plazan.







Enara Santamaria Jaio

«Niri gehien gustatzen zaidana
lagunekin egotea eta jolastea da»

# Poltsa berezia

POLTSA BEREZIA

Egun batean aspertuta egon nintzen eta botak jantzi eta Gernikara menditik joan nintzen. Bidean hala tzakur bat ikusi nuen, tzakur arraro bat eta beldurtu egin nintzen.
Bost minutu ezkutatuta egon nintzen tzakurra joan arte. Ezkutatuta nengoen tokian lurrean poltsa arraro bat ikusi nuen. Poltsa hartu eta Gernikarantz jarraitu nuen.

Nire amonaren etxera ailegatu nintzan eta berari poltsa erakutsi nion, aurkitutako poltsa. Zabaldu genuen eta bertan zegoen arkatz batekin tximeleta bat marraztu nuen. Komunera joan eta bueltan margotutako tximeleta hegan zegoen sukaldean. Hau baj miraria pentsatu nuen. Gero karamelo bat marraztu nuen eta benetazkoa bihurtu zen.

Arkatz berezia magikoa zen!





Anne Dobre
«Dantza egitea pilo bat gustatzen zait»

# Anderren pilota

Anderren pilota

Bazen behin txakur oso-oso polit bat,
abandonatuta zegoen eta kalean bizi zen
gizajoa. Oso txiroa zen txakurtxo hau,
badakizue non egiten zuen lo? Kutxa batean!
Gose sentitzen zen bakoitzean hiritik joaten
zen janari bila, egun batzuetan harategira
joaten zen okela eskatzera eta hango
harakinak denetarik ematen zion eta okela ez
zegoenean, okindegira joaten zen okinari
ogia eskatzera.
Egun batean txakurtxoa parketik ibiltzen
zegoenean pilota bat ikusi zuen bidetik, pila
pilo bat gustatu arren bere jabea bilatzea
erabaki zuen. Ander izeneko mutil batena zen!
Izen hori pilotan idatzita zegoen behintzat.
Txakurrak muturrarekin kolpe bat eta pilota
bota zion. Ander hori ikustean super

pozik ipini zen, txakurtxo hori bere pilota aurkitu zuen eta!
Etxera bueltatzerakoan Anderrek idei bat izan zuen, zergatik ez dut aita eta amarekin hitz egiten txakurra nire etxera eramateko?

Eta hori egin zuen, baimena eskatu zuen eta baietz esan zioten. Ander eta txakurra oso pozik jarri ziren eta hortik aurrera lagun minak egin ziren.

Anne Dobre LH2 8 urte





Uxue Martinez Artetxe

«Marraztea gogoko dut eta egotea ere bai»

# Zuri gure laguna

Zuri gure laguna

Neguko goiz batean hiru lagun Markel, Elena eta Uxuek
mendira joatea erabaki zuten elur panpin bat egitera.
Elur panpina egiteko bakoitzak etxetik gauza bat
ekarri zuen: azenario bat, bufanda bat, txano bat,
eskularruak eta abar... Gero lagunak parkean
elkartu ziren etxetik ekarritako guztiarekin
gora igotzeko.
Heldu zirenean elur panpina egiten
hasi ziren etxetik ekarritakoarekin.
Lan asko egin zuten eta amaitu
zutenean oso polita gelditu zen.
"Zuri" izena jarri zioten eta aurpegian
irribarre izugarria egin zioten.
Biharamunean hiru lagunak berriz mendira
joan ziren eta konturatu ziren
elur panpinak ez zuela irribarrerik.
Pentsatu zuten eguzkiak irribarrea urtu ziola.
Orduan esan zioten lasai egoteko hurrengo
urtean berriro ikusiko zirela.
Hala bazan edo ez bazan gezurra dela ez nizi esan.



AMAIERA



Eider Solaun Lejarzegi

«Nire lagunekin jolastea eta irriztatzea gustatzen zait»

# Familia, Rufo eta Misi

## Familia, Rufo eta Misi

Bazen behin familia maitagarri bat, goizean ohetik altxata denak elKarrekin gosaltzen zuten. Rufo txakurra eta Misi Katua loradegiko etxetxoan elKarrekin lo egiten zuten. Nahia eta Sonia etxeko umeak ziren.



Hurrengo egunean Nahia Ruforekin loradegira irten eta txokolatezko gaileta batzuk eraman zizkion.

Nahia eta Rufo parkera joan ziren txoriei janaria ematera. Baina ohartu gabe basorantz abiatu eta galdu egin ziren. Nahia negarrez hasi zen:

—Ai ene! Non gaude Rufo? galdu egin gara.

Rufo txakur bizkorra zenez etxera eraman zuen eta denek poz-pozik ospatu zuten.

AMAIERA.



Naia Atutxa Aurrekoetxea

«Australiara joateko gogo handia daukat»

# Australiara bidaia

AUSTRALIARA BIDAIA

Bazirem behim Leire eta Mikel izeneko bi ume. Gernikam bizi zirem. Asko gustatzem zitzaiem bidaiatzea.

-Joango gara Australiara?-esam zuen Leirek.

-Bai! bai! bai! Australiara Koalak eta Kanguruak ikustera! -esam zuen Mikelek. Hegazkina hartu eta ham joam zirem poz-pozik. Bidaia luzea zen eta lagum bat topatu zutem:



-Hola Maialem nora zoaz?

-Ni Australiara noa eta zuek?-

- Gu ere bai! Hau poza!

Orduan hirurak batera Australiara joan zirem. Heldu zirenean txango bat egitea pentsatu zuten eta Kanguru famili bat ikusi zuten. Leire konturatu zen Kanguro bat triste zegoela.

- Zer gertatzem zaizu?-esan zuen Leirek.

- Ba nire umetxoa boltsatxoan zegoen eta orain ez dago!

- esan zuen Kanguro amak.

- Lagunduko dizut topatzen. Leire, Mikel eta Maialem Kanguro txikia bilatzem hasi zirem eta Koala familia bat ikusi zutem.

-Kaixo, ikusi duzue ikusi duzue kanguro txiki bat? galdetu zuem mikelek. -ez, baina gure Koala txikia ere galdu da eta bilatzem gabiz.-Esam zuem Koala amak

-Ba goazem elkarrekin bilatzera. Guztiak batera deitzem hasi zirem: Kangurotxo! Koalatxo!....

Halako batean ondoko parkean biak batera jolastem ikusi zutem.

- Baina non egom zarete? Esam zutem ama biak batera

- Ba jolastem, lagunak gara eta

- Ondo dau baina hurrengoan ez joam abisatu barik!.

Egia bada sakelam sar.







Enara Zabala Gorroño
«Igeri egitea eta jolastea gustatzen zait»

# Zaldia eta Lili

ZALDIA eta LILI

Herri batean Lili eta bere zaldia bizi ziren. Lili zaldiarekin jolasten eta saltoak egiten foaten zen.

Egun batean zaldiak salto bat egin eta min hartu zuen hanka batean. Orduan Lilik albaitariarengana eraman zuen.

- Nun egin du min? Esan zion albaitariak.

- Zaldiak hankan min egin du. Esan zion Lilik.

Orduan albaitariak benda bat ipini zion eta bi egun geldi egoteko esan zion.

Bi egun pasa zirenean Lilik benda kendu zion eta berriro jolasten joan ziren.

Handik aurrera biak poz-pozik bizi izan ziren.





Oihan Moreno Torrealdai
«Alaia naiz eta hondartzan lagunekin
olatuak harrapatzea asko gustatzen zait»

# Jon txikiaren lehen abentura

JON TXIKIAREN LEHEN ABENTURA

Planeta txiki batean orain dela 1.500 urte
Jon txikia bizi zen eta txikia zen.
Jonen ama eta aita hil egin zituzten eta hil
tituenari topatzera joan zen. Oso ondo ezkutatu
zenez ez zuen topatu eta gero sorte askorekin
Rista bat topatu zuen.
Pista jarraitur maltzurraren koba topatu zuen.
Baina atea zegoen eta ezin izan zen sartu,
orduan otso-kume bat topatu zuen.
Otso kumeak Joni lagundu zion. Gero otso
aita etorri zen eta arazo handi batean sartu
zen otsokumea.
Aitak zigor handi bat jarri zion otso kumeari.
Gero denok batera maltzurraren etxera joan ziren
baina lapurra joan egin zen. Eta otsoaren etxera
joan ziren, taloa eta saltxitxak jatera.
Otso kumeak eta bere aitak esan zioten Joni
lapurraren 5 ezkutalekuak ezagutzen
zituztela, eta tranpa bat jarrita harrapatu
zuten. Baina lapurrak ez zuen nahi ezer esan,
orduan asko haserretu zen Jon eta esan zuen:
esan edo infernuko zulora zoaz! eta lapurrak
esan zuen: nahiago dut infernuko zulora
joan esatea baino, beraz ez dut esango!

baina Jonek ahots hori ezagutzen zuen
eta pentsatu zuen bere familiako bat zela.
Orduan konturatu zen Jon bere familiakoa
zela eta ur botila esperial bat bota zion
eta horrekin ikusi zuen bere lehengusu Juan
zela; orduan esan zion: zergatik hil zenituen
ama eta aita?
– Zergatik? Ba... inbidia asko nizuelako.
Jonek barkatu zion eta gero lagun egin ziren
eta festa handi bat egin zuten basoko fruituekin
eta oso ondo pasatu zuten. Baina hala ere
Jon triste zegoen, aita eta ama faltan botatzen
zituelako. Eta hala bazan edo ez bazan
sar dadila kalabazan eta atera dadila Astelarrako
plazan.





Ana Elgezabal Rodriguez
«Eskulanak egitea ikaragarri gustatzen zait»

# Ana eta sorgindutako gaztelua

ANA eta SORGINDUTAKO gaztelua

Bazen behin Ana izeneko neska bat. Sorgindutako gaztelu baten alboan dagoen herri batean bizi zena. Inor ez zen gaztelura hurbiltzen, ezta herri haretako erregina. Bertan, mamuak bizi zirela esaten zutelako.

Egun batean, Ana bere txakurrarekin, Pintxorekin, gaztelvaren alboan zegoen parkera jolastera joan zen. Halako batean, Pintxok korrika ihes egin zuen eta gazteliko lorategian sartu zen. Ana ikaratu egin zen. Ana koitxadua, txakurrari deika ibili zen baina Pintxo ez zen agertzen. Oso ikaratuta zegoen baina gaztelura sartzea erabaki zuen. Gaztelua ilun-ilun zegoen eta aramnusarez beteta. Ana negarrez



hasi zen baina ezin zen pintxo barik joan. Bat-batean gaztelulko areto handi baten aurkitu zuen bost katakumeren atzetik zebilela. Hartu eta besarkatu egin zuen bere txakurtxo maitea.

-"Uuuhhh, uuuhhh" - entzun zen.

-Nor dabil hor? - galdetu zuen Anak oso baldurtuta.

-"Uuuhhh, uuuhhh" - berriro ere. Mamua zela pentsatuz

Ana dardarka hasi zen baina buelta eman eta moxolo begi eder bat zela ikusi zuen. Barreka hasi zen.

Hurrengo egunean, denari kontatu zien ikusitakoa. Handik aurrera, herriko neska-mutil guztiek Ana Ausarta deitu zioten, herriko erreginak eskerrak eman eta gaztelura bizitzera joan zen.

Bi eta bi lau, amaitu zaigu ipuin hau.







Ugaitz Azillona Durana

«Niri animaliak ikustea eta lagunekin jolastea da gehien gustatzen zaidana»

# Azeria mundua ezagutzen

"Azeria mundua ezagutzen"

Orain dela urte asko azeritxo kume bat korrika egitea asko gustatzen zitzaiona, korrika eta korrika munduko herrialde asko ezagutu zituen.

Lehenik Errusian agertu zen. Aurrera bere-alak ikusi zituen ilez beteriko txano bat jarrita zuela. Korrika jarraitu eta txinako harresian agertu zen. Han dastatu zituen arroz bolatxo goxoenak.

Hegoamerika hartu eta Perura heldu zen. Hango mendietako alpaka eta llamen gainean ibili zen, horrela Argentinako glaziarretara heldu arte. Hori bai ikuskizun zoragarria!

Parrandarako gogoa zuen eta korrika Brasilgo karnabalak ospatzera heldu zen. Piñaren mozorroa jarrita dantzatu zuen.

Orain bai nekatuta zegoela!!! Hawaiko irlara joan eta atsedena hartu zuen ur epeletako hondartzetan. Energia berreskuratuta New-York-era abiatu zen. Hot dog jan zuen Askatasunaren estatua ikusten zuen bitartean.

Hainbeste ibili ondoren bere familia eta lagunak faltan botatzen zituenez, etxera bueltatu zen oporiz beterik.



Ugaitz Agillona 3F

L.H. 3. maila



Koldo Basterretxea

«Futbola asko gustatzen zait»

# Denok alkarrekin lagun

DENOK ALKARREKIN LAGUN

Bazen behin Mikel izeneko mutil bat bede-
ratzi urtekoa, Elantxoben bizi zena, bere gurasoa eta
anai txikiarekin. Futbolera jolastea eta musika
entzutea gustatzen zitzaion. Oso mutil jatorra
eta lasaia zen, denekin ondo konpontzen zen bai-
na mutil berezia zen arazo bat zeukan eta.
Oin batean behatz bat gehiagorekin jaio zen eta
sekretua ondo gordeta zuen, baina ezin zuenez
denbora luzean ezkutatu bere lagun onenari
kontatu zion. Mikel beste lagunak enteratzeko
beldurrarekin zegoen uste zuelako denek barre
egingo ziotela. Bere lagun Iker berelakoa
zen, oso bihotz onekoa. Iker harriturik gel-
ditu zen eta ideia bat burura etorri zitzaion.
Eskolako egun batean jantokiko ordua aprobe-
txatuz mahai gainera igo zen Iker eta denei
hitz egin zien, berak dituen arazo guztiak azal-
du zizkien baina hala ere bere buruaz harro
sentitzen zela. Mikelek isiltzeko esaten zion
urduri. Halako batean denak hasi ziren txalo-
ka eta neska mutil batzuk aitortu zituzten

beraien arazoak bata potolo sentitzen zela,
beste batek belarri handiak,...
Mikel aho zabalik geratu zen lagunei entzu-
ten. Mahi gainean jarri eta bere sei behatz era-
kutsi zituen. Denak beragana hurbildu eta nor-
maltasunez hartu zuten lagunak kontatzen zue-
na, momentu horretan Mikel oso pozik sentitu
zen konturatu zelako denok daukagula gustatzen
ez zaigun zerbait.
Eskolatik etxera heldu zirenean lagun biak gerta-
tutakoa gurasoei esan zien eta denak pozik ge-
ratu ziren. Handik aurrera Mikelek ez zuen ino-
iz bere oina ezkutatu.

## JANTOKIA



Koldo Basterretxea



June Beaskoetxea Artetxe

«Niri gehien gustatzen zaidana, pianoa jotzea eta igeri egitea da»

# Hartz Larrosa

## HARTZ LARROSA

Bazen behin hartz txiki bat Jon deitzen zena. Jonek lau urte zituen, begi handiak eta beltzak zituen. Jon larrosa kolorekoa zen. Berak ez zuen larrosa kolorekoa izan nahi beste hartz guztiak zuriak baitziren, bera bakarrik zen larrosa. Egun osoa triste pasatzen zuen. Modu askotara saiatu zen baina beti larrosa gelditzen zen.



Etxean triste zegoenean ideia bat izan zuen eta hau esan zuen:

-Badakit! Pinturazko pote handi bat hartu eta gorputzean jarriko dut!

Orduan pinturazko pote handi bat hartu zuen eta gorputzean jarri zuen. Ispilu aurrean jarri zen Jon eta pozaren pozez saltoka hasi zen.

-Aupa! Zuria naiz orain.

Orduan bere amak hau esan zuen:

-Jon, joan bainatzera.

Jon bainatzera joan zen poz-pozik. Bainatu ostean Kalera irten zen. Bidean ispilu bat ikusi zuen eta Konturatu zen berriro zela larrosa. Etxera joan zen Jon triste-triste, eta amak esan zion:

-Zergaitik etorri zara etxera berriro?

-Nik ez dudalako larrosa izan nahi, beste hartz guztiak zuriak dira, ni bakarrik naiz larrosa.

Hurrengo egunean Jon ikastolara joan zen. Ikastolan andereinoak galdetu zion:

- Jon, zenbat da bi gehi bi?

Eta Jon triste zegoenez ikastolan ez zegoen bat ere adi. Orduan andereinoak esan zion:

-Jon zer gertatzen zaizu?

-Triste nago.

-Zergatik?

-Ni bakarrik naizelako hartz larrosa beste guztiak zuriak dira.

-Sekretu bat esan nahi dizut, nik belarri azpian orban handi bat dut eta txikia nintzenean triste egoten nintzen, baina gero pasatu zitzaidan eta orain askoz ere hobeto nago.



Zu ez egon triste larrosa zarelako bakoitza bere erakoa da. Baina nire sekretua ez esan inori ere ez.

Jon poz pozik joan zen bere etxera, eta amari esan zion:

- Orain ez zait inporta larrosa izatea.

Bere ama asko poztu zen eta besarkada handi bat eman zioten elkarri. Hurrengo egunean Jon inoiz baino pozago joan zen ikastolara.





Maddi Urkiri Anakabe

«Lagunekin jolastea eta marraztea gustatzen zait»

# Mutil dantzaria

MUTIL DANTZARIA

Bazen behin balleta asko gustatzen zitzaion 9 urteko mutiko bat. Bere izena Josu zen eta astean lau egunetan joaten zen dantza eskolara balleta egitera. Josu 4. mailan zebilen ikastolan eta bere gelako mutilek barre egiten zioten neskekin joaten zelako balleta egitera.

Egun batean Josu jolastokitik bueltatu zenean gelara, bere balleteko zapatilak erabat apurtuta eta ebakita aurkitu zituen motxilan. Josu negarrez hasi zen ez zuelako ulertzen nork egin zezakeen horrelako gauza krudel bat. Josuren amak berehala erosi zizkion balleta egiteko zapatila berriak baina Josu oso triste zegoen. Josuk bere sufrimentuari aurre egiteko oso gogor entrenatu zuen hurrengo bi hilabeteetan eta Euskal telebistako saio baten dantza egiteko aukeratu zuten beste dantzari batzuen artean. Josuk Eurodisneyra bere familiarekin joateko sari bat irabazi zuen saio horretan eta bere gelako ume guztiek ikusi zuten telebistan zein ondo egiten zuen dantzan.

Egun horretatik aurrera ez zion barrerik egin beste inork ikastolan. Izan ere, ikastolako umerik ospetsuena bihurtu zen!
Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Gernikako plazan.





Eider Mugira
«Familiarekin egotea gustatzen zait»

# Maitagarrien magia

## MAITAGARRIEN MAGIA

Bazen behin Leire izeneko ume bat maitagarrietan asko sinisten zuena. Maitagarriak marraztea gustuko zuen eta horregatik bere lagunek iseka egiten zioten. Egun batean andereñoak basora joango zirela esan zien. Leire oso pozik jarri zen maitagarriak egongo zirela pentsatzen zuelako. Etxera joan zenean aita eta amari kontatu zien andereñoak esandakoa gero motxila prestatu zuen. Ohera joan aurretik bere txakurra Laida zaintzera joan zen. Duela urte bete gaixotu zen Laida eta medikuek orain arte ezin izan zuten osatu.

Hurrengo egunean basora joan ziren eta Leire urtxintxa baten atzetik zihoala urrundu egin zen taldetik. Orduan ate handi bat ikusi zuen eta atea zabaldu zuenean maitagarrien mundura joan zen. Han maitagarri mordoa zeuden. Denak oso politak eta atseginak ziren. Beraien lagun oso ona egin zen. Maitagarriek Leireri esan zioten eurek ipunetan agertu arren benetan existitzen

direla eta ez zela ezer ezinezkoa. Maitagarriekin asko jolastu zuen eta maitagarriek bere lagunak aurkitzen lagundu zioten.

Etxera heldu zenean sorpresa handi bat hartu zuen. Bere txakurra korrikan etorri zitzaion poz-pozik. Osatuta zegoen!!! Jarraian konturatu zen maitagarriek osatu zutela bere txakurra. Orain ez zion axola besteek maitagarrietan ez sinistea berak maitagarrietan sinisten jarraituko zuen beti gu laguntzeko prest daudelako.





L.H. 4. maila

Maialen Flores Arriaga
«Euskaraz jolastea eta irakurtzea gustuko ditut»

# Jone eta Beltz astoa

## Jone eta Beltz astoa

Bazen behin, Jone izeneko neska koskorra. Urrutiko baserri batean bizi zen Beltz astoarekin. Bederatzi urte izan arren, oso trebea eta bizkorra zen. Gainera, natur zale aparta zen.

Udazkeneko egun sargori batean, lagunekin jolastera joan zen.

"Mandoka mandoka
hormara bota pilota
pilota hormatik
egin salto gainetik"





Jolasa amaitu ondoren, hamaiketakoa

egin zuten elkarrekin. Berehala, Jonek lagunak agurtu zituen eta etxerantz abiatu zen Beltz astoarekin.

Bidetik zihoazela, Ane ikusi zuen eta zera esan zion:

-Norantz zoaz?

-Etxerantz noa, berandu da eta!

"Dilin-dalan", eguerdiko hamabiak jo zuten eta arkar-arkar aurrerantz zihoazen.



Bat-batean, Beltzek ez zuen pausorik eman nahi. Egarri zen eta iturrirantz joan ziren. Ura edaten zegoela, handik zebilen txakur bati buztana zapaldu zion. Hura bai zela haserrea! Txakurra zaunka egon



arren, tipi-tapa etxerako bidean jarraitu zuten. Txorien txio-txioak nabariak ziren eta hara! txori korotza erori zitzaion buru gainera.

Ez zitzaion batere gustatu eta zubitik pasatzerakoan, laprast eginda, plaunta Gola-ko errekara erori zen. Zubitik jarri zenean, Beltzek arrantzaka espa egin zuen eta etxe aurreko soroan egon zen Jonen zain. Azkenean, nekatuta heldu ziren urrutiko baserri hartara.

Maialen Florez





Aret Villasante Rementeria

# Txori berria

## TXORI BERRIA

Bazen behin neskatxa bat Izaro deitzen zena. Txoriak zituen gustuko. Egunero eskolara joateko, leku zoragarri batetik pasatzen zen. Leku horretan lorategi bat zegoen. Lorategia Pedroren etxearen aurrean zegoen. Pedro txorizale amorratua zen eta txori asko zeuzkan, bakoitza bere kaiolan.

Egun batean Izaro eskolarantza zihoala eta egunero bezala, Pedroren txoriei begira gelditu zen. Orduan txoriak asko gustatzen zitzaizkiola ikusita, Pedrok Izarori bat oparitzea pentsatu zuen. Txori honek Joni zuen izena. Kanario horia zen. Kume bat zenez ez zekien kantatzen. Izarok txoria oso gustora hartu zuen eta etxera eraman zuen jagoteko. Egunero alpistea, fruta eta ura ematen zizkion eta baita kaiola garbitu. Laster, lagun handiak egin ziren eta Izaro txoriarengana hurbiltzen zen bakoitzean, Jonik apur bat kantatzen zuen. Gauez Joni etxearen barruan zegoen baina egunez balkoian. Txolar asko hurbiltzen zitzaizkion eta Jonik bere janaria jaten uzten zizkien. Horrela lagun asko egin zituen. Jonik bi urte igaro zituen oso oso pozik Izaronean baina ez zuen ikasi txio-txio egiten.

Azkenean, Izarok txoria atzera eman behar izan zion Pedrori eta horregaitik Izaro triste jarri zen. Pedrok hainbat kanario zituenez bere etxea zen lekurik aproposena Jonirentzat. Han txio-txio egiten ikasiko zuen.

Handik gutxira, goiz batean Izaro eskolarantza zihoala, Joni ikusi zuen txio-txioka. Biak alai jarri ziren biak alkar ikusten segitzen zutelako.

AMAIERA





Dune Alcala Alvarez
«Gustuko dut futbola eta lagunekin geratzea»

# Eskiatzaile bat

Eskiatzaile bat

Bazen behin, Kanadan, Robson Kanu deitzen zen ume bat.

Bera eskizale amorratua zen. Bere bizitzan dena zen eskiatzea eta ezer ere ez gehiago.

- Bakarrik eskiatzen baduzu eta zure bizitzan hori bakarrik bada gauzarik hoberena hortik desapuntatu egingo zaitut, ez zaudelako familiarekin egoten, eta denbora guztia egoten zaudelako eski pistetan.

Robson Kanuk esan zuen:

- Ez, ez niretzat dena da eskiatzea!

- Ez bazara familiarekin gehiago egoten, --esan zuen amak--, desapuntatu egingo zaitut eta Kitto!!!



- Ez, ez ama! Zuk beti esaten duzu ona dela kirola egitea!

- Ona da! Baina ez da ona bakarrik kirola egitea!

- Bale, bale!, --esaten du Robson Kanuk--, gaurea gehiagotan parte hartuko dut, familiarekin ere egongo naiz gehiago! Baina ez desapuntatu eski taldetik mesedez!

_Ongi da! -esan zuen amaik -.

-Hama urte barru...

Robson Kanu eskiazale amorratua zen oraindik. Baina bere bizitzan gauza gehiago zeuden.

Robson Kanuk, eski talde batean, txapelketa mundiala eta jolas olinpikoak irabazi zituen.

Hortik aurrera Robson Kanu eskizale famatua izan zen, baina ez hori bakarrik. Robson Kanuk lagun asko zituen, matematikoa zen eta bere familia oso harro zegoen berarekin.





Miren Mondragon Alvarado
«Asko gustatzen zait marraztea eta ipuinak idaztea»

# Maltzur mozorrotua

Sherlock Holmes

Bazen behin, mutil oso ona, momentuz. Begi marroiak eta ile baltza zeukana, hain baltza zen, iluntasuna baino ilunagoa zela. Alex zuen izena, gure adina baino apur bat gehiago zeukan, hamahiru urte zituen. Bere lagunik onena Mikel zen, begi berdeak, ile hori distiratsua, eguzkia bezalakoa.

Ikastolan zeudela, esan zuen maisuak;

- Gaur neska berri bat etorri da, Kattalin izena du - esan zuen.

Neskak ilea marroi kolorekoa zuen eta begi berdeak zituen. Egun batean, Mikel eta Alex-en laguntasuna apurtu zen; Ikastolan erasotzaile bat egon zen. Jon, ile beltza eta begi urdinekoa. Jon-ek Kattalineri liburuak apurtu zizkion, eta Alex-ek ikusi egin zuen, baina ez zuen ezer egin.

Egunak pasa ahala, erasotzaileak berdin jarraitzen zuen. Mikel gertatuarekin kezkaturik zegoen eta irtenbidea emateko parte hartzea erabaki zuen. Hau da, maisuarengana abiatu zen;

- Maisu, Jon-ek kuadernoak.... apurtu zizkion Kattalineri! Gertakizun hau ezin da holan geratu! -

Gainera, Mikel Alexekin haserretuta zegoen, gertakizun hori ikustean ez zuelako ezer egin.

Maisuak konpondu egin zuen Jon eta Kattalinena. Gelakideen aurrean, guztiek euren iritzia emanez. Jonek ulertu zuen txarto egin zuela, eta orain euren artean ondo konpontzen dira.

Baina, Alexek ez zuen ulertu halako gertakizun batean ezer egitea txarto zegoela, bati lagundu behar dala, baizik.

Azkenean, urteak pasa ziren, nagusitu egin ziren denak, eta Alex gero eta maltzurragoa egin zen.

Mikelek Sherlock Holmes bat izan nahi zuen, misterioak argitzen zituena. Garai hartan, misterio kezkagarria topatu zuen, egunkarietan agertzen zen mamuarena; jendea mamuaren etxera sartu ostean, desagertzen zen.

- Uuuhh, uhh, kar, kar, kar!!



Kattalineri ere misterioa gustatzen zitzaion, beraz mamuaren misterioa argitzen lagundu zion Mikeleri. Horretarako, gabn batean mamuaren etxera biak joan ziren. Etxea oso iluna eta beldugarria zen, armiarmaz beterik eta arratoiak ibiltzen ziren. Mikel eta Kattalin etxeari argazkiak ateratzen zebiltzan, baita ikertzen ere.

Bat batean, oihu oso beldugarria entzun zen:

- Lagunntttzzzaaa !!! -.

Mikelek oihua entzuterakoan, Kattalin bere ondoan ez zegoela konturatu zen. Pila bat urduritu zen;

- Kattalin, Kattalin, non zaude !! - oihukatu zion kezkaz.

Baina, ez zuen erantzunik lortu, denboraz pasa ostean ate guztiak itxita zeudenela eta beraz, etxe barruan harrapaturik zegoela konturatu zen.



Azkenean, Mikel lasaitu zen eta tinko pentsatzen hasi zen. Etxe osoa miatu zuen, bakarrik falta zitzaiona eskailerak igotzea zen;

- Kattalin !! -.

Igo zen eta Kattalin topatu zuen sokarekin lotuta;

- Eskerrak topatu zaitudala ! -. - Mamuak egin dizu ?

- Bai, bai, halaxe izan da, mamuak lotu nau -.

Mikelek askatu zuen eta Kattalinek esan zion;

- Mamuak giza oinak dauzka. Erori nintzenean ikusi nizkion.

- Seguru nago, norbait mozorrotuta dago !

- Mozorroa kendu behar diogu !! - esan zuten batera.

Mamua inguratzen saiatu ziren, beldurra jasonez. Mikelek mamua lurrera bota zuen eta jarraian eskuak eta hankak sokarekin lotu zizkion.

Kattalinek esan zuen ;

- Nor izango ote da ?-. Eta jarraituan Kattalinek mozorroa kendu zion. Mozorrotuta zegoena Alex zen. Kattalinek eta Mikelek ustekabean hartu zuten. Alex bera, mamuoren misterioarekin jendea erakartzen zuen, bahitu eta baliozko gauzak lapurtzen zizkion.

Mikelek eta kattalinek jendea askatu zuten eta euren gauzak itzuli zizkioten.

Poliziak Alex kartzelara eroan zuten.

Kattalin eta Mikel oso pozik zeuden misterioa argitzeagaitik.

Hurrengo egunean, Mikel eta Kattalin egunkari guztietan agertzen ziren, famatuak bihurtu ziren munduko misteriorik garrantsitzuena argitzeagaitik.







Amaia Zubillaga Salces
«Igeri egitea gustatzen zait»

# Umeak eta Brujuli

## Umeak eta Brujuli

Bazen behin, Brujuli izeneko sorgin bat 84 urte zituena. Orraztu gabeko ile luze kizkur beltza, zeramana. Begi berde distiratsuak, seguraski gaztetan ederrak erakutsiko zituen. Sudur zorrotza, belarri handiak eta barre egitean hortz ustelak erakusten zituen.



Gorputza, soineko gorri luze zahar batekin estalita zuen, konkorra agerian uzten zuelarik.

Bere esku zimurrak, atzazkal luze zikinez beteta zeuden.

Oinetan, etxeko zapatila zaharrak. Begi laranjadun katu bat zuen: Pitu, ezezagunekin beti atzamarka egiteko prest.

Herritik, zurrumurru bat zabaldu zen; Sorginak, umeak harto eta beraiekin sopa egiten zuela, honen beldurrez, nekez irtetzen ziren kalera bakarrik.

Egun batean, mutil ausart bat heldu zen hirira, Markel, eta kalera irten zen jolastera.

Brujuli, bere magia-bolarekin konturatu zenean, arinketan irten zen umearen bila. Harrapatu eta bere etxera eramatea otu zitzaion.

Harkel etxera bueltatzen ez zela konturatzean, ama oso urduri, bere bila joan zen. Jendearekin hitz egin ondoren, gero eta urduriago jarri zen, auzokoengandik entzutean, sorgin batek umeak hartzen dituela eta alkateak gomendatu duela umeak bakarrik kalean ez uzteko.

—Poliziari deitu beharko diot- pentsatu zuen.

Poliziak, ahalegindu ziren topatzen, baina arrastorik ez.

Bitartean, umea negarrez sorginaren bordan eta Brujuli aldiz... pozarren!

Sorgina, bere zereginetan buru belarri zegoenean, umeak ihes egitea lortu zuen.

Pozarren pozez korrika hasi eta ama besarkada batekin inguratu arte ez zen gelditu. Orduan, arnasestuka dena kontatu zion.

Amak, poliziari azaldu ondoren, Brujuli atxilotu zuten.

Brujuli, bere burua egoera berri horretan ikustean, goibeldu zen. Negarrez, damututa dagoela eta Harkelegaz hitz egin nahi duela eskatu zuen.

Errukituta kartzelazainak, nagusiari kontatu zion Brujuliren tristura eta Harkeleri deitu zioten.



Markel bere amarekin hurbildu zen kartzelara sorginarekin egoteko.

Umea ikustean, hunkituta azaldu zion bera oso bakarrik sentitzen zela eta horregatik eramaten zituela umeak etxera. Bazekiela herritik zurrumurruak zabaldu zirela, baina gezurrak izateaz gain, kalte handia egin ziotela. Lagunak nahi zituela.

Brujuli kartzelatik irten ondoren, umeak bisitatzera joaten zitzaizkion bere etxera. Pituren lagunak ere egin ziren. Asko dibertitzen ziren, Brujuliren etxe zikin, sorgindu hartan. Geroztik, zoriontsuago bizi ziren denak.





Endika Telletxea Monasterio
«Futbol zalea naiz eta futbolaria izatea nahiko nuke»

# Errotulki magikoak

## Errotulki Magikoak

Bazen behin Unax izeneko mutiko bat, hamar urte zituen eta abenturazalea eta marrazkizalea zen. Egun osoa ematen zuen marrazkiak egiten. Arreba bihurria zeukan, Uxue izenekoa. Unari amorru gehien ematen ziona bere arrebak berak egindako marrazkiak apurtzea zen eta hori sarritan gertatzen zen.

Unaxen urtebetetze egunean bere izebak opari zoragarri bat egin zion: errotulki distiratsuz betetako kutxa.

Unax errotulkiak estreinatzeko irrikitan zegoen. Logelara joan zen, bere koadernoa atera zuen eta basamortu bat marraztu zuen. Basamortu horretan piramide batzuk zeuden eta urrunean bost gamelu. Ez zegoen ez arbolarik ez etxerik baina kaktus asko eta palmondo batzuk zeuden.



Halako batean gameluak berarengana joan ziren. Unax harritu egin zen eta etrotulki hoiekin margozten zuen denak bizitza hartzen zuela konturatu zen. Gamelu batera igo eta piramide baterantz abiatu zen. Piramidera heldu zenean sartu egin zen eta pasabide ilun batetik pasatu zen. Gero pasabidearen amaieran ate handi bat ikusi zuen. Atea oso astuna zen. Azkenean kostatu egin zitzaion baina zabaltzea lortu zuen.

Atea ireki zuenean gela handi bat ikusi zuen, gelaren hormetan hieroglifiko ulertezin batzuk zeuden eta gelaren erdian Kleopatraren hilkutxa ikusi zuen. Kutxa urrezkoa zen eta alboetatik harribitxiak zituen.
Erlojua begiratu zuen eta jateko ordua zela konturatu zen. Piramidetik irten zen, paper bat hartu zuen motxilatik eta bere etxea margotu zuen errotulkiekin. Etxera bueltatu zenean familikoei kontatu zien dena baina inork ez zion sinestu izeba izan ezik eta begiarekin keinu bat egin zion. Hurrengo egunean eskolatik bueltatu zenean bere logelara sartu, errotulki magikoak hartu eta Ipar Poloa marraztu zuen. Marrazkian iglu bat, eskimal bat eta lera bat agertzen ziren.



Marrazkira sartu zenean eskimalak eskua luzatu zion agurtzeko. Ondoren bere igluo erakutsi eta larruzko jantzia utzi zion. Kainabera bana hartu zuten eta arrantza egite joan ziren. Handik bi ordutara arrainez gainezka zuten otzara. Bat-batean

Unaxek hartz zuri erraldoi bat ikusi zuen eta ikaratu egin zen. Papera hartu eta bere etxea margotzen hasi zen baina hartza gero eta hurbilago zegoen eta ez zeukan denbora asko rik. Azkenean marrazkia amaitzea lortu zuen eta etxera bueltatu zen.

Oso urduri zegoen eta familiakoei kontatu zien gertatutakoa baina oraingoan ere ez zioten sinestu.

Hurrengo goizean ideia bat burutatu zitzaion: etxekoei galdetzea nora joan nahi zuten eta hori marraztuko zuela. Familiakoek Frantziara joan nahi zutela esan zioten eta Unaxek errotuluak hartu eta Paris marraztu zuen: Pariseko Eiffel dorrea eta Sena ibaia marraztu zituen.



Oraingo honetan familia osoa joan zen eta Unaxek egia esaten zuela jakin zuten. Parisen Eiffel dorrera igo ziren eta argazki zoragarriak atera zituzten.

Azkenean etxera bueltatu ziren eta errotulki magikoei esker munduko lekurik ederrenetara joan ahal izan ziren.

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN
SAR DADILA KALABAZAN
ETA IRTEN DADILA
GERNIKAKO PLAZAN



Garazi Garitaonaindia Eizagirre

«Niri lagunekin egotea eta futbolean jolastea gustatzen zait»

# Mendien zaindaria

## MENDIEN ZAINDARIA

Bazen behin gizon bat Peru deitzen zena. Bera mendien zaindaria zen, gizaki askok zaborra botatzen zutelako lurrera. Egun batean, Peru gaixotu egin zen, eta orduan ez zen egon mendien zaindaririk. Denak pozez igotzen ziren mendietara zaborra botatzen; eta hainbeste zabor zegoenez, ezin zen mugitu ere. Baina gauza larri bat gertatu zen. Peru ez zen sendatzen. Orduan, berak beste pertsona bat izendatu zuen bere ordez June deitzen zena. Mendira joan zenean, Junek dena ikusi zuen zikin zaborrez betea. Gorri-gorri jarri zen haserre bizian. Junek oihuka denei esan zien mendietatik jaisteko, mendiak hain zikin uzteagatik. Junek esan zien: Hainbeste gustatzen bazaizue lurrera zaborra botatzea, orduan zaborra jasotzea ere, ezta? Denak beldurrez hasi ziren zaborra jasotzen, baina pertsona batek, Ane izena zuena esan zuen pentsatzen Juneri eria sartuko ziola.

Nik ez dut lurrera zaborrik bota, orduan zergaitik jaso behar dut? Eta Junek erantzun zion:-Pertsona ona bazara denei eta batez ere naturari lagunduko diozu, ezta?-Bai, erantzun zuen Anek. Denen aurrean esan zuen Junek:

-Hemendik egun batzuetara, astebetera edo bira dena jasota ikusi nahi dut. Bi aste igarota han joan zen mendiak ikusten ea txukun bazeuden. June harritusik joan zen eta esan zuen:-Oso pozik nago zuekin, batez ere zurekin Ane. Ane gorri-gorrituta jarri zen beraren lehen aldia zelako pertsona bat berarekin harro zegoena



Ordu batzuetara, June hospitalera joan zen, ea Peru sendatu zen ikustera. June oso pozik jarri zen, Peruk esan zidalako bihar joango zela. Heldu zen eguna, eta Peru goiz-goiz joan zen June esnatzera. June esnatu zenean, Peru eta biak prestatu ziren eta mendira joan ziren, ea Txukun basegoen ikustera. Junek Peruri bera egon ez den egunetan gertatu zena kontatu zion. Peru lehenengotan haserretu egin zen, baina gero dena txukun ikustean oso pozik jarri zen, eta esan zuen Ane ezagutu nahi zuela. Ane ezagutu eta biak elkarrizketan pozik egon eta gero, denei galdetu zien irribarrez:

-Egia al da azken egunetan ondo portatu zaretela?

Denak baietz esan zuten irribarrez. Junek eta Peruk batera esan zuten:

-Ea hemendik aurrera ez duzuen zaborrik lurrera botatzen.

AMAIERA



Garazi.G 5.maila



Jon Irazu Betanzos
«Bota bertsoa lotsari!»

# Patxi, lotsatia baina bertsolaria

## PATXI LOTSATIA BAINA BERTSOLARIA

Patxi, bere bizitzako momentu berezi batean zegoen. Gurasoen lana zela eta, herriz aldatu baitzen. Oso triste zegoen. Herri berri horretan ez zuen lagunik eta kalera joan beharrean, etxean geratzen zen liburuak irakurtzen. Patxi oso mutiko isila zen eta ez zuela ezer ondo egiten pentsatzen zuen.

Hurrengo egunean ikastola berrira joan zen lehenengoz. Ikasle asko zeuden bere gelan. Beldur apur batekin sartu zen gelan. Gelako guztiak hurbildu ziren Patxirengana eta galderak egiten hasi ziren. Maisuak, trankil uzteko esan zien, bere lehen eguna zela eta lagunak egiteko denbora apur bat behar zuela. Ez zioten maisuari kasu askorik egin eta galdezka hasi ziren:

– Zelan deitzen zara?
– Non bizi zara?
– Zer gustatzen zaizu?
– Zergaitik etorri zara hemengo ikastolara?

Ezin zuen denekin. Irakaslearen ondoan geratu zen Patxi. Irakas-



leak bere burua aurkezteko esan zion. Patxik, arnasa sakon hartu zuen eta bere burua aurkezten hasi zen:
- Kaixo, ni... ni... Patxi naiz e-e-eta oso isila naiz...
Irakasleak trankil egoteko esan zion, ez zela txapelketa bat. Gero mutil baten alboan eseri zen. Mikel deitzen zen. Patxik pentsatu zuen bere lehenengo laguna izango zela.
—Bueno, atera bertsolaritzako liburuak - esan zuen irakasleak. Patxik, mahai ordenatua zeukan eta erraz aurkitu zuen liburua.
Zabaldu egin zuen eta irakasleak esan zuen:
- Joko txiki bat egingo dugu. Hitz bat esango dut eta ahalik eta errima gehien topatu behar dituzue. Eta lehenengo hitza da... Aditza!
"Hitza, eskutitza, bihotza, medikuntza, gatza, errotza, gorroltza..."
- Denbora! - maisuak paper guztiak hartu zituen. Han zeuden errimak. Mikelek 13, Anek 12, Jonek 10... Patxik 21!!!
—Oso ondo Patxi! - esan zuen maisuak - Ez genekien errimetan hain ona zinenik! Bertsoak egiten dituzu?
Patxi, gorri-gorri jarri zen. Denak begira zeuden eta txaloka hasi ziren. Klasea amaitzean, maisuak hurrengo egunerako bertso bat eskatu zien ikasleei. Patxi oso pozik joan zen etxera.



Egun honetara arte ez zuen pentsatu zenbaitetan ona zenik, beti pentsatu zuen ez zuela ezertarako balio. Egun horretan ulertu zuen saiatuz gero eta lotsa kenduz gero, bertsotan oso ona izango zela.





Nile Mugira Orbe

«Asko gustatzen zait saski-baloira jolastea»

# Igogailu magikoa

## IGOGAILU MAGIKOA

Kontatuko dizuedan historia hau orain dela bi aste gertatu zitzaion nire lagun bati igogailuan zihoala. Bere izena Peio da eta goizero nagitasun handiz ibiltzen denez, berandu heltzen da eskolara. Izan ere, nire lagun horri izugarri gustatzen zaio telebista ikustea eta gehienetan oso berandu oheratzen da. Baina lotia ere badenez, berandu altxatzen da eta ez du sekula lortzen klasera sasoiz iristea. Bera izatez mutil bizkorra eta irudimen handikoa bada ere, erdi lo egoten da klasean eta zaila egiten zaio adítasuna mantentzea.

Peiok Jon deitzen den anaia gazteagoa dauka, oso bestelakoa, eskolara garaiz joaten dena eta ikasle arduratsua. Anaiak beti esaten dio Peiori kasu egin behar diela irakasleei, etorkizunean lanerako aukerak izateko. Baina Peiok ez dio kasurik egiten eta etxerako lanak egin beharrean telebista aurrean jartzen da.

Duela bi aste, Peio beti bezala goizeko bederatziak laurden gutxiagotan lotan zegoen eta ama deiadarka ohetik altxatzeko agindux. Oheko izaren artean estutzatzen zen lo gehiago egin nahian. Halako batean, ohetik jaiki eta, beti bezala astiro-astiro, sukalderaino joan zen laranja zukua eta kolakaoa hartzera. Bederatziak bost gutxiago ziren eta Peio oraindik laranja zukua edaten. Azkenean hortzak garbitzera joan eta beste bost minutu bota zituen komunean. Klasea asteko ordua zen eta Peio oraindik arropak janzten. Bederatziak eta hamarrean amari musu bat eman eta etxetik irten zen.

Peio 20. pisuan bizi da eta nekagarria egiten zaionez eskaileretatik ibiltzea, beti erabiltzen du igogailua igo eta jaisteko. Igogailuko botoiari eman eta berehala etorri zitzaion parera. Barrura sartu

zenean, zero jartzen duen botoiari eman eta jaisten hasi zen. Baina hamabigarren solairuan, bat-batean, gelditu egin zen. Peio osa urduri jarri eta botoi guztiei ematen hasi zen, baina zirkinik ere ez. Gero, ostikoka hasi eta haserretuta bere buruari galdetu zion nork asmatu ote zuen traste zahar hura. Orduan, ezustean, igogailuko ateak ireki egin ziren eta museo baten areto batean zegoela iruditu zitzaion. Tramankulu desberdinen inguruan jendez inguratuta gizon bat azalpenak ematen ari zen. Bera ere non zegoen eta zer gertatzen zen jakiteko irrikaz, haiengana hurbildu zen.

- Otis Jauna, eta nola bururatu zitzaizun asmakizun hori? - Galdetu zuen inguruan zen batek.

- Ba, egia esan, ez zitzaidan niri bururatu. Emazteak esan zidan ea ezin nezakeen zerbait asmatu erosketaz betetako poltsa astuna etxearen bigarren solairuraino igoteko. Eta horrela motore elektriko baten indarrez funtzionatzen zuen tramankulu hau eraikitzea bururatu zitzaidan.

Orduantxe konturatu zen Peio gizon hura zela igogailuaren asmatzailea eta, historiako irakasleak asmakizunen inguruan agindutako lana egin gabe zuenez, hura zela aukera lan bikain bat egiteko pentsatu zuen.

- Barkatu, Otis Jauna. Azalduko zenidake zehatzago nola eraiki zenuen lehenengo igogailua?

- Bai horixe! mutiko.

Peiok berehala ireki zuen motxila eta orri zuri bat eta boligrafoa hartu zituen. Otis Jaunak emandako azalpen guztiak zehaztasun handiz idatzi zituen. Azalpenak entzuten eta idazten ari zen bitartean konturatu zen Peio zein garrantzitsua den ikasi ahal izateko adituasuna mantentzea eta arretaz entzuten jakitea. Orduan gogoratu zuen ere, amaiak hainbat alditan esandakoa: "Etorkizunean gauza garrantzitsuak egiteko, asko ikasi beharra dago."

Bere lana prest izan zuenean, Peio lasterka abiatu zen aretotik irteteko eskaileretarantz, baina jaisten hasi bezain laster, berriz ere igogailuaren barruan zegoela ohartu zen. Erlojuari begiratu eta harrituta oraindik bederatziak eta hamar zirela ikusi zuen.

Berriz ere zero botoiari eman eta etxeko atarira heltzean, arrapaladan irten zen eskolarantz. Gelara sartu eta barkamena eskatu zion bere irakasleari berandu heltzeagatik, baita agindutako lana eskura eman ere. Hurrengo egunean historiako irakasleak zoriondu egin zuen egindako lan txukunagatik.

Egun hartatik Peio asko aldatu da. Beti da lehena eskolara heltzen eta bertan agindutako lanak zein etxerako bidalitakoak interes handiz egiten ditu. Gainera, adi-adi entzuten ditu irakasleek ematen dituzten azalpen guztiak. Seguruenik, etorkizunean bera ere pertsona ospetsu bihurtuko da.





Javi Garatea Ansotegi
«Kirola egitea eta ikastea gustatzen zait»

# Itsas bidaia

Itsas bidaia

Kaixo! Nire izena Koldo da eta nire itsas bidaia kontatzera nator.

Ni marinela nintzen duela 30 urte eta orain nik zelan bizi nuen nire lehen bidaia jakingo duzue. Hasiko gara.

Lekeitio, 2017ko urtarrilaren 16a

Gaur, nire lehen bidaia da Amerikara eta oso urduri nago nire familia urte beterako uzten dudalako. Nire laguna Iñaki, nirekin dator niri laguntzera. Triste dago ez duelako bere arreba txikia bakarrik utzi nahi.

Itsas Atlantikoa, 2017ko urtarrilaren 20a

Gaur, istripu bat izan dugu, olatu handi batek harrapatu gaitu eta Tomas uretara jausi da. Ez dakigu korronteak nora eraman duen. Kapitaina oso urduri dago ez duelako gizon gehiago galdu nahi.

Maldibak, 2017ko urtarrilaren 21a

Gaur, mapa bat aurkitu dut Maldibetako oihan batean. Mapan irla batzuk daudela Maldibetatik agertzen da. Irla bakoitzak bere animalia dauka, batean lehoia, bestean tigrea, hirugarrenean gorila eta azkenengoan bale bat.

Itsas galdua, 2017ko otsailaren 1a

Gaur, ez dakit non gauden, baina kapitainarengan daukagu itxaropen guztia, ea irlaren bat aurkitzen dugun itsas galdu hontan. Iñaki oso urduri dago galduta gaudela pentsatzen du eta ezingo duela bere arreba berriro ikusi.

Lehoiaren irla, 2017ko otsailaren 7a

Gaur, lehoiaren irla aurkitu dugu eta tenplu bat ere. tenplu barrura neu bakarrik sartu naiz eta tenpluko gela batean lehoia aurkitu dut eta berarekin borroka egin behar izan dut nire maskota izan dadin.

Tigrearen irla, 2017 otsailaren 14a

Gaur, koba bat aurkitu dugu tigrearen irlan eta koba barruan ez zegoen ezer, baina harribitxi bat aurkitu dut tigre formarekin. Oraindik ez dakit zer egin harribitxiarekin, niretzat gordeko dut eta akabo.

Gorilaren irla 2017ko otsailaren 17a

Gaur, gorilaren irla aurkitu dugu eta sumendi batean pergamino bat ere. Pergaminoak balearen irlan behean portal bat dagoela eta aurkitu ditugun lau gauzak barruan sartzeko.

Balearen Irla, 2017ko otsailaren 26a

Gaur, urpera joan gara, Iñaki, nire lehoia Aduriz eta ni. portal hori aurkitzera. Portalak ona etorri diren guztiak bizi poza sortuko dutela besteengan esaten du. BIZI POZA IZANGO DUZUE!

Lekeitio, 2100ko Urtarrilaren 16a

Hori gertatu zitzaidan eta orain pozik bizi naiz hemen Lekeition.

Espero dut nire istorioa gustatu izana!





Ane Pinedo Barandika

«Nire denbora librean saskibaloira jolastea eta gitarra jotzea gustatzen zait»

# Lapurra izan arren, bera lagunik onena

Lapurra izan arren, bera lagunik onena!

Bazen behin, lapur bat udaltzainetatik ihes eginez, Arratzuko herrira heldu zena. Basoan zegoen etxe zahar bat erosi zuen eta hantxe, lapurtutakoa sartu zuen. Herri horretan irakasle bat behar zuten eta lapurra, irakaslea zela esanez, klaseak ematen hasi zen. Ez zen irakasle alaia, beti zorrotza eta umore txarrarekin egoten zen baina aurrera jarraitzen zuen.

Egun batean, mutil bat zigortu zuen. Mutil hura Aitor zen, hamaika urteko mutiko bat. Aitorrek begi urdinak zituen, ilea berriz marroia zeukan, bere belarriak txiki-txikiak ziren eta bere sudurra Pinotxoren bezalakoa zen. Berak ez zeukan ezeren beldurrik eta gehien gustatzen zitzaiona ikertzen ibiltzea zen. Bere amarekin bizi zen, Aita Alemanian zeukan orduan, astero, marrazki edo argazki bat bidaltzen zion. Aitorrek pentsatzen zuen irakasle horrek bazeukala sekretu bat eta zapatu goiz batean, Aitor, ama agurtuz, mendira joan zen:

- Ama, banoa mendira.

- Ondo dago, baina bazkaldu orduerako etorri.

Gure esploratzailea, Aitor, mendira joan zen eta etxola zahar bat aurkitu zuen. Baina atzeko aldean etxe zahar bat ere ikusi zuen. Lehenengo, utzita zegoela pentsatu zuen baina ez, katakume bat aurkitu zuen. Ez zuen inor aurkitu eta etxola barrura sartu zen. Bertan kutxa handi bat zegoen giltzarekin zarratuta. Bazkal ordua zenez, etxera bueltatu zen:

- Aitor, zelan menditik gaur?

- Ondo ama, etxe zahar bat ikusi dut-eta.

- Kontuz ibili behar da gero!

Hurrengo egunean ere, Aitor, kurbildu egin zen, tximiniatik kea irteteen zela ikusi zuen eta norbait etxe barruan zegoela pentsatu zuen. Bertara kurbildu beharrean, etxera bueltatu zen. Astelehenean eskola eguna zen eta Pablo, irakaslea, umore hobearekin eta hobeto portatzen hasi zen umeekin. Aitorrek galdetu zion:

- Non bizi zara?

- Hor mendian dagoen etxe zahar bat erosi dut eta berritu egin dut.

Aitor isildu egin zen eta korrika joan zen etxera.

- Ama, ama! Badakizu nor bizi den mendiko etxean?

- Ez, atzo ere galdera berdina...

- Pablo, gure irakaslea! Ama, uste dut Pablo laporra dela.

- Zer? Zergatik diozu hori?
- Ama parkatu, baina ez dut esan hala denik, uste dudala baizik.

Orduan, Aitorrek amari lehengo egunean etxola barrura sartu zenean, kutxa handi bat aurkitu zuela kontatu zion. Hurrengo egunean, herriko lagunei kontatu zien eta denek udaltzainari ezer ere ez esatea adostu zuten. Hasieran lagunak bildur apur bat izan zuten baina laster konturatu ziren Pablo gero eta hobeto portatzen zela umeekin, baita herriko jendearekin ere.

Handik hile batera, udailtzainak etorri ziren herrira, orduan Pablok baieztatu egin zuen berak lapurreta egin zuela. Etxera joan zen eta bere kutxa handi hura udaltzainari eman zion. Pablo lan barik gelditu zen garai batean eta diru apur bat edukitzeko, lapurtu egin zuen. Arratzuko herrira etorri zenean ordea, damutu egin zen eta bizi berri bat egin nahi zuen. Orduan Aitorrek esan zion:

- Guk jakin dugu zure sekretua, baina guk denok nahi dugu zuk hemen jarraitzea.
- Baina lapurtu egin dut!
- Baina hemen ez duzu egin ezer txarrik!

Pablok, kartzelara joan behar zuela pentsatzen zuen, baina Aitorrek bera bezalako irakasle on bat ezin zutela kartzelaratu esan zion. Udaltzainak ez zuen atxilotu, lapurtutako gauza guztiak berreskuratu zituztelako. Lan ona egiten zuela eta aurretik egindakoaz damututa zegoela konturatu ziren.

Pablok, besarkada handi bat eman zion Aitorri. Orduan, Aitorrek, ikertzailea izatea asko gustatzen zitzaiola kontatu zion eta horrela aurkitu zuela bere etxea. Biak lagun minak egin ziren eta Aitor ia egunero joaten zen Pabloren etxera katakumea ikustera eta asteburu guztietan menditik zehar ibiltzen ziren biak elkarrekin. Nork jakin zeren bila!

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila
kalabazan eta atera dadila Arratzuko plazan.

Ane





Garazi Arandia Alberdi
«Igeri egitea eta zientziak ikastea gustatzen zaizkit»

# Estralurtarra

## ESTRALURTARRA

Euskal Herriko herri txiki-txiki, batean, basoaren erdian, egurrezko Txabola zahar bat zegoen.

Txabola hartan lau pertsona eta txakur bat bizi ziren: aita, ama, semea Iker izenekoa eta alaba Amaia. Txakurra, Beltz, deitzen zen.
Egun euritsu batean, gabeko hamaiketan, Amaiak ezin izan zuen lorik egin eta Ikerrek ere ez. Zarata bitxiak entzuten zituzten...

-Zzzxzszss (zarata bitxiak)

-Aizu, Amaia ezin dut lorik hartu eta zuk?

-Nik ere ez Iker...

-Ez dira izango ama eta aita sukaldean zerbait ari direla egiten, zera... janariren bat! Eta lehioa irekita daukatela!

-Ez, ez dut uste, beranduegi da janariren bat orain egiten hasteko...

-Eta zaratei buruz hitz egiten daudela, non arraio sartu da Beltz?

-Bai, arrazoia daukazu, gauero egiten du gurekin lo eta! Joango ahal gara kanpora Beltz bilatzera?

-Beno, ez dago pixka bat ilun...

-Ez izan kakatia aizu!

-Ongi da, baina ez nuri gero ikararen bat egin, e! Ez zaizkit asko gustatzen...

Amaia eta Iker Beltzen bila joan ziren eta bitartean
Ikerrek txikle bat hartu zuen.
Ikerreri txiklea erori egin zitzaion.
-Kontuz Amaia!
Amaiak txiklea zapaldu zuen eta zulo batera erori zen.
Orduan konturatu ziren nondik zetorren zarata bitxi hura...
-Uau, uau, uau! (zaunkak)
-Begira Iker, hantxe dago Beltz!
-Espaziontzi bateri, dago zaunka egiten!
-Bai ikusten dut orain... txakur hauek...
Momentu horretan estralurtar bat irten zen espaziontzitik
eta Amaiari, eta Ikerreri, hitz egiten hasi zitzaien.
-Ogu§yp63gola (estralurtarra)
-Ez diot piperrik ere ulertzen, eta zuk Amaia?
-Nik ere ez diot ulertzen, eta orain nola komunikatuko gara?
-Ideia txikirik ere ez daukat...
-Ogu H2p654 lago§a (estralurtarra)
-Beno Iker, esango diegu gure gurasoei?
-Ezta pentsatu ere ez! Zoratu egin zara ala?
-Iker, oraingoan kasu egingo dizut. baina jakin dezazun
ni naizela gu biotatik handiena!

Ikerrek eta Amaiak estralurtarra hartu eta etxera eraman zuten laguntzeko.

Lo egin zutenean, biak amets berbera amestu zuten. estralurtarra buruetara uhinak bidaltzen baitzegoen!

Arriskuan zaudete, arriskuan zaudete, arriskuan zaudete!

Errepikatzen zuen ametsak denbora guztian.

Orduntxe konturatu ziren, arriskuan zeudela, ametsaren bidez...

Biharamunean zapatua zen. Berandu jaiki ziren eta beste estralurtar bat ikusi zuten. Estralurtar hura txarra zen.

Ikerrek eta Amaiak ez zekiten zer egin, umeak ziren eta ez zeukaten indar handirik. Tranpa bat prestatzea erabaki zuten:

-lurrera xaboia bota eta estralurtarra txirristatu ondoren, urez beteriko poltsa bat bota zioten burura, eta hankak soka batekin lotu zizkioten.

Estralurtarrarekin akabatu zuten.

Egun hartan konturatu ziren buruak indarrak baino askoz ere gehiago laguntzen duela bizi honetan.

Ipuin hau sar dadila Kalabazan eta irten dadila Allendeko plazan.







Arale Lejarzegi Azurmendi

«Niri dantza egitea eta margoztea gustatzen zait, baina batere gustatzen ez zaidana matematika da»

# New York, nire ametsa

## NEW YORK NIRE AMETSA

Ni Irati naiz, 11 urte ditut. Euskadiko herri txiki eta pobre batean bizi naiz, nire ametsa erropa diseinatzailea izatea da, baina dirurik ez daukagunez etxeko lanak egiten geratu behar naiz etxean, eskolara joan gabe. Amarekin bizi naiz, aita bonbardaketa batean hil zelako.



Amak ez dauka lanik herrian, horregaitik New Yorkera joan behar da lan egitera. Baina dirua lortzea ez da izan hain erraza, etxeko gauza guzti-guztiak saldu genituen eta oraindik hegazkinerako dirurik ez. Behia ere saldu behar izan genuen eta 2 oiloak ere bai; azkenik lortu genuen amarenbidaia erostea. Ni triste nengoen bihar gauean joango zelako, baina amamarekin geratuko nintzen, eta lehengusuekin. Oso ondo pasatuko nuen.

21 urte nituenean amarena ez zitzaidan ahaztu, baina pozik nengoen. Amama infarto batekin hospitalera joan zen eta ni Martin nire lehengusuarekin geratu nintzen bere etxean. Baina gaur gauza izugarri bat gertatu zait!, buelta bat ematera irten naizenean, aiba! New Yorkerako bilete bat aurkitu nuen errama artean. Biharko da eta... Ama aurkitzen badut? Irrikitan nago. Martinengana joan eta notizia kontatu diot, biletea erakutsi, eta harrituta geratu da.



Hurrengo eguna heldu zenean, maleta eginda neukan eta 20 autobus hartu behar izan nituen Loiura heltzeko. Agobio itzela neukan hegazkinaren barruan, baina paisaia... GUAU, zelakoa, ikaragarria. New Yorkeko airoportura heldu ginenean, ez nekien nora joan behar nintzen, azkenean garbitzaile batek txinoz edo hitzegin zidan eta kanpora bidali ninduen. Mundu guztiak egiten zuen arraro hitz. Taxi bat hartu eta abenturara! Heldu nintzenean, ez nuen ezer ulertzen, adreiluz egindako bloke erraldoiak, pertsonak hile arrosa edo berdearekin, belarritakoak zeuzkaten sudurrean eta tripan ere bai, beste planeta bat ematen zuen honek. Etxea aurkitu behar nuen eta baita lana ere bai, horregaitik pertsona dezente bati galdetu nion ea etxe arrunt bat non aurkitu ahal nuen, hark ezdakitzer erantzun zidan "What are yo doing" horrelako zerbait. Orduan beste bateri, gero beste bateri baina ezer ez, negarrez hasi nintzen kale erdian eta neska batek euskaraz hitzegin zidan. Alelvia aleluia.



Azkenean norbaitek normal hitzegiten zuen. Ane zen bere izena, eta bere etxera eramango ninduela esan zidan. Lagun onak egin ginen, berak ere txinoz egiten zuen hitz, baina txinoa ez zela esan zidan, ingelesa baizik. Klase batzuetara ere joan nintzen ingelesa ikasteko, oso diberdigarria zen. Anek diseinatzai-lea izan nahi zuen, ni bezala horregaitik berarekin hasi nintzen joaten klaseetara. Eskerrak Ane aurkitu nuela! Bestela den-denak txarto amaituko zuen.

Gaur betiko moduan Aneren etxean izartu naiz eta nire urte-betetzea da, lanerako autobusa hartu behar dut, gaur lanean mailaz igongo naute, eta diseinatzaile izaten hasiko naiz. Amak ere diseinatzaile izan nahi zuen, lortuko zuen? Lanera heldu naiz eta! Atetik sartu eta ama ikusi dut, berak ni ikusi nau eta besar-katu egin gara. Munduko neskarik pozena egin nau, eta urtebetetze oparirik onena eman dit. Ama diseinatzailea da, ni bezala eta gaurtik aurrera New Yorken biziko gara, diseinuak egingo ditugu eta "Estatua de la libertatera joango gara.



2 URTE IGARO ZIRENEAN DIRU ASKO LORTU GENUEN ETA GEHIENA NI TXIKITAN IZAN NINTZEN BEZALAKO UMEENTZAT EMAN GENUEN

**GERNIKA-LUMOKO UDALA**
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

**KULTURA SAILA (HPS)**